

Laudion, 2023ko urtarrilaren 4an

## **Laudioko Udalak publizitaterako panel berriak jarri ditu herriko hainbat gunetan zehar**

*Ekimen horrekin Udalak Kulturaren Plan Estrategikoan hartutako konpromisoetako bat betetzen du*

Laudioko Udalak Alberto Acero plazan jarri du jada publizitaterako panel berrietako bat. Datozen asteetan Laudioko Udalak iragarki-aula horiek instalatzen jarraituko du. Izan ere, guztira sei panel instalatzea aurreikusi da. "Neurri hau gure elkarte, kolektibo eta tokiko eragileei ahotsa emateko beharretik sortzen da. Gure elkarteek antolatutako ekitaldiei babesa eta zabalkunde handiagoa ematea espero dugu", adierazi du Maite Cortazar Kultura zinegotziak.

Herrian egokituko diren hurrengo iragarki-aulak joan-etorri handiko leku eta espazioetan jarriko dira, Elizalde kalean eta Lamuza plazan, besteak beste. Publizitaterako puntu horiek udalerriko auzoetara ere iritsiko dira, baina aurrerago. Panelek Udalak antolatu edo/eta babestutako ekitaldiak jasoko dituen eta kristal batez estalita egongo den ageriko alde bat dute, eta tokiko taldeek, eragileek eta kolektiboek antolatzen dituzten ekitaldiak jasoko dituen beste bat. Bigarren horrek ez du inolako estaldurarik izango, taldeek edozein unetan erabili ahal izan dezaten eta jardueren publizitatea egin dezaten.

Horrela, Laudioko Udalak Kulturaren Plan Estrategikoan hartutako konpromisoetako bat betetzen du, bertan ekimen hori jasotzen baita.